

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure bazkide nagusiak **sexologoak eta psikologoak** izango dira, guk ez dugulako beraiek bezalako esperientzia eta prestakuntza horrelako lan bat aurrera eramateko.

Enpresaren jabeak proiektuko partaideak izango gara (Eneko E, Eneko Z, Sean, Amets eta Inaya), psikologoak/sexologoak edota beste edozein langile mota ez dira enpresaren jabeak izango, langile hutsak baizik.

Enpresaren funtsezko itunak enpresaren partaideen artean izango dira, bakoitzak funtsezko baliabide bat jarriko duelako:

- Eneko E. eta Sean harreman publikoetaz arduratuko dira, bazkide gehiago lortzeko eta iada ditugun bazkideei konfiantza transmititzeko, horrela gure enpresaren zerbitzuak berriz kontrata dezaten.
- Amets eta Eneko Z. plataforma egiteaz eta datu-base on bat izateaz arduratuko dira, bezeroak plataforma atsegin bat izan dezaten eta anonimatoa ziurtatua egon dezan.
- Inaya kontabilitatea eramateaz arduratuko da, enpresaren diru-sarrerak eta irteerak kontrolpean izateko eta horrela diruarekin arazorik ez izateko.

Horrez gain aurretik esan bezala psikologo eta sexologoekin itun bat sinatuko dugu baliabideak-eskuratzeke, kasu honetan esperientzia eta jakinduria. Profesional hauek oso garrantzitsuak dira, gazteen zalantzak, frustrazioak, kezka... hobeto ulertzen eta konpontzen lagunduko gaituztelako. Modu batean psikologoek arriskuak murrizten ere laguntzen gaituzte, askotan genero identitatekin arazoak dituzten pertsonak bere buruaz beste egiten dutelako, ez baitute laguntzarik jasotzen eta sarritan ez dutelako ondo ulertzen nolako identitea duten, beraien gorputzarekin deserotasun sentimendu bat sortuz. Baina sexologia; genero... gaiaren inguruan beste horrenbeste adibide daude, eta psikologeak horretan lagun dezake.